

# AKUSMATIKA ETA KUTXABELZTEA.

## ARROTZATZE PROZESU GARAIKIDEAK SOINU ARTEAN

**Tesiaren egilea:** Oihane Iraguen Zabala

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Artea eta Teknologia Saila

**Tesi-zuzendaria:** Josu Rekalde eta Mikel Arce

**Tesiaren laburpena:**

Akusmatika praktika arrotzatzailerak garaikidetzat hartzen da ikerketa-lan honetan. Soinua arrotz bilakatzea antzinaroko praktika pitagorikoa izanik, gaur egun birtueltasunarekin bat egiten du. Egun, errezel birtualak existitzen dira, ordenagailuetako pantailek antzinako errezel pitagorikoaren tankerako jokaera dute, non ahots bariko gorputzak eta grafia gabeko testuak igaro egiten diren une oro. Akusmatikak komunikazioaren ikusizko esparrua ekiditen badu ere, bere barne-funtzionamendua estali egiten du eta kutxa beltz baten antzera jokatzen du.

Latour-ek “Kutxabelzte” kontzeptuarekin prozesu bat adierazten du, non lan zientifiko-teknikoa ikusezina bilakatzen den, lan zientifiko edo teknikoak berak duen arrakastaren ondorioz. Soinuak arrotzaten direnean, ezezagunak bilakatzen direnean, kontrako joerara garamatza, soinuez kontziente izatera eta propio bihurtzera, ezezagunarekin lan egitera.

Soinu artean gertatzen diren praktikak (eta batez ere praktika akusmatikoak) asmakizunarekin, ezezagunarekin, arrotzarekin eta desbideratuarekin harremanean jartzen ditut. Praktika horietan gertatzen diren erlazioekiko jakin-minak piztu zuen tesi-ikerketa hau: izaki eta ez-izakiaren artekoa, artefaktu eta aktantearen artekoa, intentzio eta zentzuaren artekoa.

Akusmatika praktika arrotzatzailerak garaikidetzat ulertzen dut, erresistentziarako erreminta bat, gorputz bariko ahots bat, *cyborg* bat, soinu fantasmagoriko bat balitz bezala. Horregatik guztiagatik, praktika honek bi noranzko izateko gaitasuna dauka: kolektibo murriztuak sortu eta indartu egiten ditu presentzia fisikoaren premia barik, eta era berean, ezagutzak iruditeri kolektibo edo indibidualean babeslekuak sortzen ditu. David Toop-ek esaten zuen soinua mamu bat dela, oroitarazle bat; espazioan duen presentzia anbigua dela eta denboran duen existentzia iragankorra. Soinuaren ukiezintasuna zitala da, siniestroa, eta horregatik bereizezinak dira entzuten duguna eta egiten ditugun begitazioak.

Entzutea, beraz, egite sortzaile bat da, inprobisatzea, espazio bat eratzea. Entzutea erresistentziarako ekintzat hartzen dut, ariketa fantasmagorikotzat, ekimen (ez)ohikotzat. Gaur egunean kokaturik, ordenagailuetako pantailak antzinako errezel pitagorikoarekin alderatzen ditut, eta aldi berean itsumenerako gailu batekin, non ahots bariko gorputzak eta grafia gabeko testuak igaro egiten diren une oro.

Ezezaguna denak iruditeriaren atea zabaltzen ditu, baina aldi berean kontrako noranzko bat du, teknologien barne-funtzionamendua ezagutzen ez denean gailu teknologikoak berak bideratzen baitu imajinarioa. Beraz, akusmatikak komunikazioaren ikusizko esparrua ekiditen badu ere, bere barne-funtzionamendua estali egiten du, kutxa beltz baten antzera jokatzeko. Telebista, ordenagailuak, erresonantzia-kutxak, logelak, adimena, horiek guztiak kutxak dira. Kutxa beltzak. Kanpo-estimuluek bertan eragiten dute, kutxa barnean ezezagunak zaizkigun irudi-ahotsez osaturiko pentsamendu eta emozioak martxan jarri. *Input* hauei ematen diegun *output*-a, erantzuna aztertzean barik, kutxa beltzen barneko erresonantziak ikertzean dut jakin-mina.

Hortaz, tesi honen nahia honakoan datza: soinu-praktika intermediak aztertzean, praktika akusmatikoak ikertzean, ziberfeminismoa ariketa akusmatiko garaikidetzat proposatzean, eta ezezagunaren (kutxa beltz bat balitz bezala hartuz) eta ezagunaren (kutxa garden bat balitz bezala hartuz) arteko tirabirak azaltzean.